



1. buletina. Elikadura, ingurumena eta jasangarritasuna

ELIKADURA SISTEMA JASANGARRI BAT, GU ELIKATZEKO, BIZITZEKO ETA NATURA ZAITZEKO.

Mundua jaten ari gara, literalki! Gaur egungo elikadura-sistema ez da gai izaten ari herritar guztiak modu bidezkoan elikatzeko. Eta, gainera, kalte handia eragiten ari da ingurumenean.

Sistemari buelta eman behar diogu, pertsonak eta planeta zainduko dituen sistema jasangarriago baten alde, haien arazoan errotik jardunez. Elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko eredu berri bat.

Elikatze-sistemaren jasangarritasunerantz jotzea da klima-krisiari eta goseari aurre egiteko irtenbidea; baita ekoizleen errentagarritasunerako ere, eta kontsumitzaileek produktu osasuntsu eta jasangarriak modu eskuragarrian eskuratzeko aukera izan dezaten.

Horrelakoa da guk nahi dugun elikadura-sistema:

- 1 Ekonomikoki jasangarria eta errentagarria.
- 2 Tokiko ekoizpena bidezko prezioekin.
- 3 Elikagai osasuntsu eta eskuragarriak.

4

Zero zabor.

5

Elikadura demokratikoagoa.

Hori dela eta, datozen hilabeteetan, San Martin Merkatuak, Enraíza Derechos eta Donostiako Udalarekin batera, hainbat jarduera jarriko ditu martxan, elikadura-sistemaren eragile eraldatzaile bihurtzeko. Adi egon San Martin Merkatuko eta Enraíza Derechosen sare sozialei eta etorri gurekin gure kontsumo ohiturak aldatzera, gure planeta elikatu, bizi eta zaintzeko.



JARDUEREN AGENDA:

IRAILAREN 27AN 17.30ETAN

**ANTZERKIA, ZIRKUA ETA TXOTXONGILOAK
SAN MARTIN MERKATUAN. PARTEKATU!**

Elikagaiak Alferrik Galtzeari buruzko Kontzientziazioaren Nazioarteko Eguna dela eta (irailaren 29a), donostiarrei hurbildu nahi diegu zein garrantzitsua den modu arduratsuan kontsumitzea elikagaiak alferrik ez galtzeko.



**PROIEKTURARI BURUZ
GEHIAGO JAKITEKO
KLIKATU
ENRAIZADERECHOS.ORG**

Buletin hau eta bertan zabalitzen ditugun jarduerak eta artikuluak Agenda 2030 gure hiritik: Herritarren proposamenak elikadura-kultura jasangarri baterantz proiektuaren parte dira, Donostiako Udalak kofinantzatuta eta San Martin Merkatuaren laguntzarekin. Bisitatu gure webgunea eta ezagutu beste material batzuk. <https://shre.ink/gV0c>